| ALEGIAKO BARATZE EKOLOGIKOEN ERABILTZAILEEN ELKARTE INSTRUMENTALAREN ESTATUTUAK | ESTATUTOS DE LA ASOCIACION INSTRUMENTAL DE USUARIOS DE LAS HUERTAS ECOLOGICAS DE ALEGIA. |
|---|---|

**I. KAPITULUA. IZENA, XEDEAK ETA HELBIDEA.**

**1. artikulua. "ALEGIAKO BARATZE EKOLOGIKOEN ERABILTZAILEEN ELKARTE INSTRUMENTALA"** izenarekin eratu da elkartea, eta Konstituzioaren 22. artikuluaren babespean, Eusko Legebiltzarraren uztailaren 22ko elkarteei eta beren estatutuei buruzko 7/2007 Legearen arabera arautuko ditu bere jarduerak.

**2. artikulua.** Elkartearen zeregin nagusia da baratze ekologikoak kudeatzeko erakunde instrumentala izatea, jarduera arautzeko araudian aurreikusitako ondorioetarako.

Ez da onartzen irabazi-asmoko jarduerarik.

**3. artikulua.** ALEGIAKO UDALETXEAren helbide bera du elkarteak.

**II. KAPITULUA. ELKARTEKO KIDEAK, ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**

**4. artikulua**. Elkarteko kide izan daitezke "ALEGIAKO BARATZE EKOLOGIKO PUBLIKOEN ERABILTZAILEEN ELKARTE INSTRUMENTALA" izeneko multzoan barne hartutako baratze publiko ekologikoen erabileraren titularrak diren pertsona fisikoak. Ezinbestekoa da baratze publiko ekologiko baten erabileraren titular izatea erakundeko kide izateko; aitzitik, ezinezkoa da bazkide izatea.

Elkartera sartzeko edo alta hartzeko zein ateratzeko edo baja hartzeko, ez da atxikipen- edo bereizketa-egintza formalik eta berariazkorik egin behar; nahikoa da baratze

**CAPITULO I.- DENOMINACIÓN, FINES Y DOMICILIO.**

**Artículo 1.** Con la denominación de **"ASOCIACION INSTRUMENTAL DE USUARIOS DE LAS HUERTAS PUBLICAS ECOLÓGICAS DE ALEGIA"** se constituye la asociación que, al amparo del artículo 22 de la Constitución, regulará sus actividades de acuerdo con la Ley del Parlamento Vasco 7/2007, de 12 de Julio, de asociaciones y sus estatutos.

**Artículo 2.** La asociación tiene la función fundamental de servir de ente instrumental de gestión de las huertas ecológicas a los efectos previstos en el reglamento regulador.

Queda excluido todo ánimo de lucro.

**Artículo 3.-** El domicilio de la asociación se establece en ALEGIAKO UDALETXEA

**CAPITULO II.- LOS MIEMBROS DE LA ASOCIACION, SUS DERECHOS Y OBLIGACIONES.**

**Artículo 4**. Pueden formar parte de la asociación todas las personas físicas que sean titulares del uso de las huertas públicas ecológicas del conjunto denominado "ASOCIACION INSTRUMENTAL DE USUARIOS DE LAS HUERTAS PÚBLICAS ECOLÓGICAS DE ALEGIA". La condición del titular del uso de una huerta pública ecológica será requisito indispensable para formar parte de la entidad, y nadie que no la tenga, podrá tener la condición de socio.

La integración o alta, y la separación o baja en la asociación se producirá sin necesidad de acto formal y expreso de adhesión o de desvinculación, siendo suficiente la

publiko ekologikoaren esleipenaren eskualdatze-egintza legez formalizatzea.

formalización legal del correspondiente acto de transmisión de la adjudicación de la huerta pública ecológica.

**5. artikulua.** Elkarteko kideen eskubideak dira:

1.- Batzar Orokorraren bileretan parte hartzea, hitzarekin eta botoarekin.
2.- Ordezkaritza-postuetarako edo zuzendaritza-lanak egiteko pertsonak aukeratzea edo horiek betetzeko aukeratua izatea.
3.- Kasuan-kasuan ordezkaritza-lanak betetzea.
4.- Elkartearen kudeaketan parte hartzea eta zerbitzu eta jardueren kudeaketa-lanak zuzentzeko orduan laguntzea, betiere lege-arauen eta Estatutuetan adierazitakoaren arabera.
5.- Batzarrari eta Zuzendaritza Batzordeari jakinaraztea elkartearen bizitza hobetzeko eta elkartearen oinarrizko xedeak eraginkortasun handiagoarekin betetzeko lagungarria izan daitekeen alderdi oro.
6.- Zuzendaritza Batzordearen edo elkartearen administrazioari eta kudeaketari buruz edo elkarteko agintariei buruz azalpenak eskatzea eta lortzea.
7.- Diziplina-neurriak hartu aurretik, entzunaldia egitea.
8.- Elkartearen jarduerei buruzko informazioa jasotzea.
9.- Elkarteak ezartzen dituen edo eskura dituen zerbitzu komunak erabiltzea.
10.- Lan-taldeen zati izatea.
11.- Estatutuen ale bat edukitzea.
12.- Elkartearen liburuak kontsultatzea.

**Artículo 5.** Son derechos de los miembros de la asociación:
1.- Asistir con voz y voto a las reuniones de la Asamblea General.
2.-Elegir o ser elegidos para todos los puestos de representación o para ejercer funciones directivas.
3.- Ejercer la representación que se les confiera en cada caso.
4.- Intervenir en el gobierno de las gestiones, en los servicios y las actividades de la asociación, de acuerdo con las normas legales y estatutarias.
5.- Exponer a la Asamblea y a la Junta Directiva todo aquello que consideren que pueda contribuir a hacer más plena la vida de la asociación y más eficaz la realización de los objetivos sociales básicos.
6.- Solicitar y obtener explicaciones sobre la administración y la gestión de la Junta Directiva o de los mandatarios de la asociación.
7.- Ser escuchados previamente a la adopción de medidas disciplinarias.
8.- Recabar información sobre las actividades de la asociación.
9.- Hacer uso de los servicios comunes que la asociación establezca o tenga a su disposición.
10.- Formar parte de los grupos de trabajo.
11.- Poseer un ejemplar de los estatutos.
12.- Consultar los libros de la asociación.

**6. artikulua.** Elkarteko kideen eskubideak dira:

1.- Elkartearen helburuekiko konpromisoa hartzea eta horiek lortzeko aktiboki parte hartzea.
2.- Elkartea mantentzen laguntzea, eta horretarako, kuotak, derramak eta estatutuek finkatutako eta horien arabera onartutako ekarpen ekonomikoak ordaintzea.
3.- Estatutuetako xedapenen ondoriozko betebehar guztiak betetzea.
4.- Elkarteko aginte-organoek hartutako baliozko akordioak onartzea eta betetzea.

**Artículo 6.** Son deberes de los miembros de la asociación:
1.- Comprometerse con las finalidades de la asociación y participar activamente para su consecución.
2.- Contribuir al sostenimiento de la asociación con el plago de cuotas, derramas y otras aportaciones económicas fijadas por los estatutos y aprobadas de acuerdo con éstos.
3.- Cumplir el resto de obligaciones que resulten de las disposiciones estatutarias.
4.- Acatar y cumplir los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de gobierno de la asociación.

**7. artikulua**. Hauek dira elkartean baja

**Artículo 7**. Es causa para ser dados de baja en la

emateko arrazoiak:
1.- Esleitutako lurzatia lantzeari uztea, esleipendunaren borondatez edo beste arrazoi batengatik.

asociación:
1.- Quien voluntariamente o por cualquier otra causa deja de cultivar la parcela asignada.

## III. KAPITULUA. BATZAR OROKORRA.

## CAPITULO III.- LA ASAMBLEA GENERAL.

**8. artikulua.**

1.- Batzar Orokorra da elkartearen organo gorena; bere kideak batzarkideak dira, norberaren eskubide uko egin ezinezkoagatik.
2.- Legez osatutako Batzar Orokorrean parte hartzen duten elkartekideek erabakiko dituzte, gehiengo bidez, Batzarraren eskumeneko gaiak.
3.- Kide guztiek bete behar dituzte Batzar Orokorrean hartutako akordioak, baita bertaratzen ez direnek, ados ez daudenek eta bozketan abstenitu egin diren bertaratuek ere.

**Artículo 8.**

1.- La Asamblea General es el órgano soberano de la asociación; sus miembros forman parte de la misma por derecho propio e irrenunciable.
2.- Los miembros de la asociación, reunidos en Asamblea General legalmente constituida, decidirán por mayoría los asuntos que son competencia de la Asamblea.
3.- Todos los miembros quedan sujetos a los acuerdos de la Asamblea General, incluidos los ausentes, los que discrepen y los presentes que se hayan abstenido de votar.

**9. artikulua.**

Hauek dira Batzar Orokorraren eskumenak:

a) Estatutuak aldatzea.
b) Aginte-organoko kideak hautatzea eta bereiztea eta beren jarduera kontrolatzea.
c) Urteko aurrekontua eta urteko kontuen likidazioa onartzea, akordioak hartzea elkartea mantentzeko modua eta egingo den ekarpena finkatzeko eta aginte-organoak egindako kudeaketa onartzea.
d) Elkartearen desegitea adostea.
e) Beste elkarte-batasun batzuetan sartzea edo horietatik irtetea.
f) Erabilgarritasun publikoaren deklarazioa eskatzea.
g) Barne-araubidea onartzea.
h) Elkartekideen behin betiko baja edo bereizketa adostea, aldez aurretik espediente bat landu eta gero.
i) Bazkide izateko aurkeztutako eskabideak ezagutzea, baita bazkideen altak eta bajak ere.
j) Elkarteko beste organo bati zuzenean egotzita ez dauden alderdiei buruz erabakiak hartzea. Artikulu honetan adierazitako eskumenen zerrenda azalpenezkoa da eta ez ditu mugatzen Batzar Orokorraren eskuduntzak.

**Artículo 9.**

Son facultades de la Asamblea General:

a) Modificar sus estatutos.
b) Elegir y separar los miembros del órgano de gobierno y controlar su actividad.
c) Aprobar el presupuesto anual y la liquidación de cuentas anuales, y también adoptar los acuerdos para fijar la forma y el importe de la contribución al sostenimiento de la asociación y aprobar la gestión realizada por el órgano de gobierno.
d) Acordar la disolución de la asociación.
e) Incorporarse a otras uniones de asociaciones o separarse de ellas.
f) Solicitar la declaración de utilidad pública.
g) Aprobar el reglamento de régimen interno.
h) Acordar la baja o la separación definitiva, con un expediente previo, de los asociados.
i) Conocer las solicitudes presentadas para ser socio, y también las altas y las bajas de asociados.
j) Resolver cualquier otra cuestión que no esté directamente atribuida a ningún otro órgano de la asociación. La relación de las facultades señaladas en este artículo tienen un carácter meramente enunciativo y no limitativo de las atribuciones de la

Asamblea General.

**10. artikulua.**
1.- Batzar Orokorra gutxienez urtean behin bilduko da izaera arruntarekin, eta abendua eta apirila artean izango da, biak barne.
2.- Aginte Organoak eskumena du Ezohiko Batzar Orokorra deitzeko, betiere egokitzat jotzen badu, eta elkarteko kideen % 10ek gutxienez eskatzen badute; horrela bada, eskaera aurkezten denetik hogeita hamar eguneko epea utziko da Ezohiko Batzar Orokorra egiteko.

**Artículo 10.**
1.- La Asamblea General se reunirá con carácter ordinario como mínimo una vez al año, entre los meses de diciembre y abril, ambos incluidos.
2.- El órgano de gobierno puede convocar la Asamblea General con carácter extraordinario, siempre que lo considere conveniente, y lo hará cuando lo solicite un número de asociados no inferior al 10%; es este caso, la Asamblea ha de tener lugar dentro del plazo de treinta días a contar de la fecha de la solicitud.

**11. artikulua.**
1.- Aginte-organoari dagokio Batzarraren deialdia egitea. Deialdian adieraziko dira, gutxienez, gai-zerrenda, lekua, data eta ordua.

2.- Deialdia Komunitatearen Batzordearekin batera jakinaraziko da (Komunitatearen Batzordera zuzentzen dira elkartearen xede gehigarriak), banan-banan, eta horretarako, idatzi bat bidaliko da elkartekideen zerrendan adierazitako helbidera.
3.- Elkarteko lehendakariak zuzenduko ditu Batzar Orokorraren bilerak. Lehendakaria ez badago, lehendakariordeak ordezkatuko du. Zuzendaritza Batzordeko idazkariak beteko ditu idazkari-lanak.
4.- Idazkariak idatziko du bileraren akta eta berak eta lehendakariak sinatuko dute. Halaber, bilerako gogoetak, hartutako erabakien testua, bozketen emaitzak (kopuruak) eta bertaratu diren pertsonen zerrenda gaineratuko ditu.

**Artículo 11.**
1.- La Asamblea es convocada por el órgano de gobierno mediante una convocatoria, que habrá de contener, como mínimo, el orden del día, el lugar, la fecha y la hora de la reunión.
2.- La convocatoria se comunicará simultáneamente con la Junta de Comunidad, a la cual se dirigen los fines auxiliares de la asociación, individualmente, mediante escrito dirigido al domicilio que conste en la relación de asociados.
3.- Las reuniones de la Asamblea General las presidirá el Presidente de la asociación. Si no estuviera, lo sustituirá el vicepresidente. Actuará como secretario quien ocupe el mismo cargo en la Junta Directiva.
4.- El secretario redactará el acta de cada reunión, que firmarán él mismo y el presidente, con un extracto de las deliberaciones, el texto de los acuerdos adoptados, el resultado numérico de las votaciones y la lista de las personas asistentes.

**12. artikulua.**
Batzar Orokorraren osaera baliozkoa izango da, bertaratu diren edo ordezkatuta dauden elkartekideen kopurua edozein delarik.

**Artículo 12.**
La Asamblea General se constituirá válidamente sea cual sea el número de personas asociadas presentes o representadas.

**13. artikulua.**
1.- Batzar Orokorraren bileretan elkarteko kide bakoitzak boto bat eman dezake.

2.- Bileran bertaratu diren edo ordezkatuta dauden bazkideen botoen gehiengo sinple bidez hartuko dira akordioak.
3.- Bileran bertaratutako pertsonen bi herenen aldeko botoa beharko da kideen bereizketari buruzko akordiok hartzeko, estatutuak aldatzeko, elkartea desegiteko eta antzeko elkarteekin federazio bat sortzeko edo jada

**Artículo 13.**
1.- En las reuniones de la Asamblea General, corresponde un voto a cada miembro de la asociación.
2.- Los acuerdos que toman por mayoría simple de los votos de los socios presentes y los representados.
3.- Para adoptar acuerdos sobre la separación de los miembros, la modificación de los estatutos, la disolución de la asociación, la constitución de una federación con asociaciones similares o la integración en una ya existente, de necesitará un

badagoen batean sartzeko.

número de votos equivalente a las dos terceras partes de los asistentes.

## IV. ZUZENDARITZA BATZORDEA.

## IV.- LA JUNTA DIRECTIVA.

**14. artikulua.**

1.- Zuzendaritza Batzordeak agintzen, administratzen eta ordezkatzen du elkartea. Gutxienez hiru kidek eta gehienez ere zazpi kidek osatzen dute. Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izango dira Batzordekideak, gutxienez.

2.- Zuzendaritza Batzordeari dagokio elkartearen xedea betetzen dela zaintzea: bereziki, berari dagokio elkartea ordezkatzea Alegiako Udalarekin izaten diren harremanetan eta berari dagokio aipatutako Udalari ordaintzea administrazio-emakidaren kanona.

3.- Elkarteak izaera instrumentala duela kontuan hartuta, Zuzendaritza Batzordeko karguak elkarteko bazkideak izango dira, idazkaria eta diruzaina izan ezik (bazkide ez izatea gerta daiteke), eta aipatutako Komunitatearen Batzordearen lehendakari, lehendakariorde eta idazkari-administrari izateko aukeratutako pertsonek beteko dituzte kargu horiek, hurrenez hurren. Postu horiek Esleipendunen Batzordean aukeratuko dira. Urtean behin gutxienez egingo da Esleipendunen Batzordea, abendutik apirilera bitartean (biak barne).

Izendatzen diren pertsonak kargua onartzen dutenean hasiko dira dagozkien funtzioak betetzen.

4.- Kargua uzten duen idazkariak ziurtatuko ditu karguen izendapena eta uztea, kargua uzten duen lehendakariaren oniritziarekin, eta Elkarteen Erregistroan jakinaraziko dira.

**Artículo 14.**

1.- Rige, administra y representa a la asociación la Junta Directiva, estando compuesta por un mínimo de tres o un máximo de siete miembros. Dicha Junta se compondrá como mínimo de Presidente, Vicepresidente y Secretario.

2.- Corresponde a la Junta Directiva velar por el cumplimiento del objeto de esta Asociación: en especial, representar a la Asociación en sus relaciones con el Ayuntamiento de Alegia y abonar al citado Ayuntamiento el canon de la concesión administrativa.

3.- Dado el carácter instrumental de la asociación, los cargos de la Junta Directiva, que será socios, excepto el secretario y el tesorero, que podrán no serlo, corresponderán automáticamente a quienes hayan sido nombrados para ejercer la presidencia, la vicepresidencia y el cargo de secretario-administrador, respectivamente, de la citada Junta de la Comunidad, en la simultánea sesión de Junta de Adjudicatarios, que se celebrará como mínimo una vez al año y dentro de los meses comprendidos entre diciembre y abril, ambos incluidos.

Las personas nominadas entrarán en funciones después de haber aceptado el cargo.

4.- El nombramiento y el cese de los cargos serán certificados por el secretario saliente, con el visto bueno del presidente saliente, y han de comunicarse al Registro de Asociaciones.

**15. artikulua.**

1.- Zuzendaritza Batzordeko kideek urte batez beteko dute dagokien kargua, kide horiek berrautatzeko aukerari kalterik egin gabe, betiere aurreko artikuluan aurreikusten den moduan.

2.- Agintaldi baten arauzko epea amaitu aurretik kargu-uzteak agintzeko arrazoiak dira:

a) Idatzi baten bitartez aurkeztutako borondatezko dimisioa. Idatzian dimisioaren arrazoiak adieraziko dira.
b) Kargua betetzeko ezintasuna eragiten

**Artículo 15.**

1.- Los miembros de la Junta Directiva ejercerán el cargo durante el período de un año, sin perjuicio de que puedan ser reelegidos, de acuerdo con lo previsto en el artículo anterior.

2.- El cese de los cargos antes de la extinción del plazo reglamentario de un mandato podrá ocurrir por:

a) Dimisión voluntaria presentada mediante un escrito en el que se expongan los motivos.
b) Enfermedad que incapacite para ejercer el

duen gaixotasuna.

c) Elkarteko kide gisa baja hartzea, lehendakariaren, lehendakariordearen eta batzordekideen kasuan.
d) Zigorra kargua betetzean egindako hutsegite batengatik.

3.- Zuzendaritza Batzordean hutsik geratzen diren postuak hurrengo Batzar Orokorrean estaliko dira. Bien bitartean, elkarteko kide batek bete ahal izango du, behin-behinean, hutsik geratutako postua.

**16. artikulua.**

1.- Zuzendaritza Batzordearen eskumenak dira:

a) Legeak aitortzen duen modurik zabalenean ordezkatzea, zuzentzea eta administratzea elkartea; halaber, Batzar Orokorrak hartzen dituen erabakiak betetzea, aipatutako Batzarrak ezartzen dituen arau, jarraibide eta irizpideen arabera.
b) Kasuan-kasuan akordioak hartzea mota orotako lege-ekintzak gauzatzeko eta beharrezkoak diren errekurtsoak aurkezteko erakunde publikoen aurrean egiten diren agerpenei dagokienez.
c) Batzar Orokorrari elkartearen interesak defendatzeko proposatzea.
d) Batzar Orokorrari elkarteko kideek ordaindu beharreko kuoten ezarpena defendatzeko proposatzea .
e) Batzar Orokorrak deitzea eta bertan hartzen diren akordioak betetzen direla kontrolatzea.
f) Batzar Orokorrari aurkeztea ekitaldi bakoitzaren balantzea eta kontuen egoera, Batzar Orokorrak onar ditzan, eta hurrengo ekitaldiko aurrekontuak egitea.
g) Elkarteak eduki ditzakeen enplegatuak kontratatzea.
h) Kontabilitatea gainbegiratzea eta zerbitzuek normaltasunez funtzionatzen dutela zaintzea.
i) Lan-taldeak ezartzea, elkartearen xedeak ahalik eta modurik eraginkorrenean lortzeko, eta talde horiek garatu nahi dituzten ekintzak baimentzea.
j) Zuzendaritza Batzordearen barruan lan-talde bakoitzaren ardura hartuko duten kideak izendatzea, taldeek

cago.

c) Baja como miembro de la asociación, si se trata del presidente, vicepresidente y vocales.
d) Sanción por una falta cometida en el desempeño del cargo.

3.- Las vacantes que se produjeran en la Junta Directiva se cubrirán en la primera reunión de la Asamblea General que tenga lugar. Mientras tanto, un miembro de la asociación podrá ocupar provisionalmente el cargo vacante.

**Artículo 16.**

1.- La Junta Directiva tiene las facultades siguientes:

a) Representar, dirigir y administrar la asociación de la manera más amplia que reconozca la Ley; asimismo, cumplir las decisiones tomadas por la Asamblea General, de acuerdo con las normas, instrucciones y directrices que esta Asamblea establezca.
b) Tomar los acuerdos que procedan en relación con la comparecencia ante organismos públicos para ejercer toda clase de acciones legales e interponer los recursos pertinentes.
c) Proponer a la Asamblea General la defensa de los intereses de la asociación.
d) Proponer a la Asamblea General la defensa del establecimiento de las cuotas que los miembros de la asociación han de satisfacer.
e) Convocar las asambleas generales y controlar que se cumplan los acuerdos que en estas se tomen.
f) Presentar el balance y estado de cuentas de cada ejercicio a la Asamblea General para que los apruebe y confeccionar los presupuestos del ejercicio siguiente.
g) Contratar los empleados que la asociación pueda tener.
h) Inspeccionar la contabilidad y preocuparse de que los servicios funcionen con normalidad.
i) Establecer grupos de trabajo para conseguir de la manera más eficiente y eficaz los fines de la asociación, y autorizar los actos que estos grupos proyecten llevar a cabo.
j) Nombrar los vocales de la Junta Directiva que hayan de encargarse de cada grupo de trabajo, a propuesta de los mismos grupos.

proposatutakoaren arabera.

k) Erakunde publiko, entitate eta beste pertsona batzuen aurrean beharrezkoak diren izapideak egitea, helburu hauekin:

- Diru-laguntzak edo bestelako laguntzak lortzea.
- Elkarbizitzarako eta komunikatzeko leku izan daitezkeen lokalak edo eraikinak erabiltzea.

l) Kontu korronteak eta aurrezki-libretak irekitzea edozein kreditu-establezimendutan eta gordailu horietan egon daitezkeen funtsak erabiltzea. 22. artikuluan adierazten da funtsak erabiltzeko modua.

m) Estatutuetan aurreikusten ez denari behin-behineko konponbidea ematea eta hartutako akordioen berri ematea hurrengo Batzar Orokorrean.

n) Elkarteko beste aginte-organo bati berariaz ez dagokion eskumen bat edo berariaz eskuordetu zaion beste edozein eskumen.

o) Alegiako Udalak baratze publiko ekologikoak esleitzeko finkatutako baldintzak betetzen direla zaintzea.

k) Llevar a cabo las gestiones necesarias ante organismos públicos, entidades y otras personas para obtener:

- Subvenciones u otras ayudas.
- El uso de locales o edificios que puedan ser lugar de convivencia y comunicación.

l) Abrir cuentas corrientes y libretas de ahorro en cualquier establecimiento de crédito y disponer de los fondos que hubiera en estos depósitos. La disposición de los fondos se determina en el artículo 22.

m) Resolver provisionalmente cualquier caso que no se haya previsto en los estatutos y dar cuenta de ello en la primera reunión de la Asamblea General.

n) Cualquier otra facultad que no esté atribuida de una manera específica a otro órgano de gobierno de la asociación o que le haya sido delegada expresamente.

o) Velar por el cumplimiento de las condiciones fijadas por el Ayuntamiento de Alegia para la adjudicación de las huertas públicas ecológicas.

**17. artikulua.**

1.- Lehendakariak edo horren ordez jarduten duen pertsonak deituko du Zuzendaritza Batzordea eta bertako kideek erabakiko dute biltzeko maiztasuna. Edozein kasutan, bilera batetik bestera ez da inoiz sei hilabetetik gorako epea utziko.

2.- Ezohiko bilera egingo da, lehendakariak deitzen duenean, edo batzordeko kideen ehuneko hogeik eskatzen badu.

**Artículo 17.**

1.- La Junta Directiva convocada previamente por el Presidente o por la persona que le sustituya, se reunirá en sesión ordinaria con la periodicidad con la que sus miembros decidan, y en ningún caso podrá ser inferior a seis meses.

2.- Se reunirá en sesión extraordinaria cuando así la convoque el presidente o bien si lo solicita un veinte por ciento de los miembros que la componen.

**18. artikulua.**

1.- Zuzendaritza Batzordearen osaera baliozkoa izango da, baldin eta aldez aurretik egin bada deialdia eta batzordeko kideen erdia gehi bateko quoruma lortzen bada.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kideek deitzen diren bilera guztietan bertaratu behar dute. Hala ere, bertaratu gabe gera daitezke, horretarako arrazoiak justifikatzen badituzte.

**Artículo 18.**

1.- La Junta Directiva quedará constituida válidamente si ha sido convocada con antelación y hay un quórum de la mitad más uno de sus componentes.

2.- Los miembros de la Junta Directiva están obligados a asistir a todas las reuniones que se convoquen, aunque, puedan no hacerlo por causas justificada. La asistencia del Presidente

Lehendakariak eta idazkariak, edo horien ordez jarduten dutenek, ordea, beti bertaratu behar dute.
3.- Zuzendaritza Batzordeak bertaratzen direnen botoen gehiengo sinple bidez hartuko ditu akordioak.

del Secretario o de las personas que los sustituyan será necesaria siempre.

3.- la Junta Directiva tomará los acuerdos por mayoría simple de los votos de los asistentes.

**19. artikulua.**
1.- Zuzendaritza Batzordeak aukera du berari dagokion eskumen bat edo gehiago lan-komisioen edo –taldeen alde eskuordetzeko. Horretarako, batzordeko kideen bi herenen aldeko botoa behar da.
2.- Halaber, kasuan-kasuan ordezkari bat edo gehiago izendatu ahal izango ditu (lehen aipatutako quoruma beharko da), esleitutako eskumenak betetzeko.

**Artículo 19.**
1.- La Junta Directiva podrá delegar alguna de sus facultades en una o varios comisiones o grupos de trabajo, si cuenta para hacerlo, con el voto favorable de los dos tercios de sus miembros.
2.- También podrá nominar, con el mismo quórum, uno o más mandatarios para ejercer la función que se les confíe con las facultades que crea oportunas conferirles en cada caso.

**20. artikulua.**
Zuzendaritza Batzordearen akordioak akten liburuan adieraziko dira eta idazkariak eta lehendakariak sinatuta egon behar dute. Zuzendaritza Batzordearen bilerak hasi aurretik, aurreko bilerako akta irakurriko da, onartzeko, edo zuzentzeko, hala badagokio.

**Artículo 20.**
Los acuerdos de la Junta Directiva han de hacerse constar en el libro de actas y han de ser firmadas por el secretario y el presidente. Al inicio de cada reunión de la Junta Directiva, se leerá el acta de la sesión anterior para su aprobación o du rectificación, si procediera.

## V. KAPITULUA. LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA.

**21. artikulua.**
1.- Funtzio hauek dagozkio lehendakariari:

a) Elkartea zuzentzea eta legez ordezkatzea, Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza Batzordeak eskuordetzen dutenean.
b) Eztabaidak zuzentzea, bai Batzar Orokorrean bai Zuzendaritza Batzordean.
c) Berdinketarik badago, erabakigarria izango den botoa ematea.
d) Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza Batzordearen bileren deialdia finkatzea.
e) Elkarteko idazkariak egindako egintzak eta ziurtapenak ontzat ematea.
f) Karguari dagozkion gainerako eskuduntzak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak eskuordetzen dituenak.

2.- Lehendakaria ez badago edo gaixorik badago, lehendakariordeak ordezkatuko du,

## CAPITULO V.- EL PRESIDENTE Y EL VICEPRESIDENTE.

**Artículo 21**.
1.- Son propias del Presidente las siguientes funciones:

a) Dirigir y representar legalmente a la asociación, por delegación de la Asamblea General y de la Junta Directiva.
b) Presidir y dirigir los debates, tanto de la Asamblea General como de la Junta Directiva.
c) Emitir un voto de calidad decisorio en los casos de empate.
d) Establecer la convocatoria de las reuniones de la Asamblea General y de la Junta Directiva.
e) Dar el visto bueno a los actos y las certificaciones confeccionados por el Secretario de la Asociación.
f) Las atribuciones restantes propias del cargo y aquellas que se le deleguen por la Asamblea General o la Junta Directiva.

2.- El Presidente será sustituido, en caso de ausencia o enfermedad, por el Vicepresidente o el

edo Batzordeko kiderik zaharrenak, ordena horretan.

vocal de más edad de la Junta, en este orden.

**VI. KAPITULUA. DIRUZAINA ETA IDAZKARIA.**

**CAPÌTULO VI.- EL TESORERO Y EL SECRETARIO.**

**22. artikulua.**
Diruzainari dagokio elkarteko baliabideak zaintzea eta kontrolatzea, baita aurrekontua, balantzea eta kontuen likidazioa egitea ere. Kutxako liburu bat eramatea. Kobrantzak, kuoten ordainagiriak eta diruzaintzako bestelako agiriak sinatzea. Zuzendaritza Batzordeak onartutako eta lehendakariak ontzat emandako fakturak ordaintzea eta soberakinak sartzea aurrezki- edo kreditu-establezimenduetan irekitako gordailuetan.

**Artículo 22.**
El Tesorero tiene como función la custodia y el control de los recursos de la asociación, así como la elaboración del presupuesto, balance y la liquidación de cuentas. Llevar un libro de caja. Firmar los cobros, recibos de cuotas y otros documentos de tesorería. Pagar, con el visto bueno del Presidente, las facturas aprobada por la Junta Directiva, e ingresar los remanentes en los depósitos abiertos en establecimientos de ahorro o crédito.

**23. artikulua.**
Idazkariaren lana da elkarteko dokumentazioa zaintzea, Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza Batzordearen bileren aktak egitea, idaztea eta sinatzea, egin beharreko ziurtapenak idaztea eta baimentzea eta bazkideen Erregistro Liburua eramatea.

**Artículo 23.**
El Secretario ha de custodiar la documentación de la Asociación, levantar, redactar y firmar las actas de las reuniones de la Asamblea General y la Junta Directiva, redactar y autorizar las certificaciones que proceda librar, así como llevar el Libro de Registro de socios.

**VII. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA.**

**CAPITULO VII.- EL REGIMEN ECONÓMICO.**

**24. artikulua.**
Elkarte honek ez du sortze-ondarerik.

**Artículo 24.**
Esta asociación no tiene patrimonio fundacional.

**25. artikulua.**
Elkartearen baliabide ekonomikoak hornitzeko iturriak izango dira:

a) Batzar Orokorrak bere kide guztientzat ezartzen dituen kuotak.
b) Diru-laguntza eta laguntza ofizialak edo partikularrak.
c) Emakidak, jaraunspenak edo legatuak.
d) Ondarearen errentak edo lor daitezkeen beste diru-sarrera batzuen errentak.

**Artículo 25.**
Los recursos económicos de la asociación se nutrirán de:

a) Las cuotas que fije la Asamblea General para todos sus miembros.
b) Las subvenciones y ayudas oficiales o particulares.
c) Las donaciones, herencias o legados.
d) Las rentas del mismo patrimonio o bien de otros ingresos que pudieran obtenerse.

**26. artikulua.**
Elkarteko kide guztien obligazioa da diruz laguntzea elkartea. Horretarako kuotak edo derramak baliatzen dira, Batzar Orokorrak zehazten duen proportzioan eta Zuzendaritza Batzordeak proposatutakoaren arabera.

**Artículo 26.**
Todos los miembros de la asociación tienen la obligación de sostenerla económicamente, mediante cuotas o derramas, de la manera y en la proporción que determine la Asamblea General, a propuesta de la Junta Directiva.

**27. artikulua.**

Urte bakoitzaren abenduaren 31n ixten da ekitaldi ekonomikoa.

**Artículo 27.**

El ejercicio económico quedará cerrado el 31 de diciembre de cada año.

## VIII. KAPITULUA. DIZIPLINA ERREGIMENA.

## CAPITULO VIII.- REGIMEN DISCIPLINARIO.

**28. artikulua.**
Aginte-organoak bazkideak zigor ditzake, dagozkien betebeharrak urratzean egindako arau-hausteengatik.

Zehapen-prozedura ofizioz hasiko da, edo salaketa edo jakinarazpen baten ondorioz. Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du zehapen-espedientea izapidetuko duen eta konponbide bat proposatuko duen instruktorea, ustezko arau-hausleari entzun eta gero. Azken ebazpena arrazoitua izango da eta aginte-organo honek hartuko du.

Zigortutako bazkideek, hartutako ebazpenarekin ados ez badaude, aukera dute Batzar Orokorrean gaia aztertzeko eskatzeko. Batzar Orokorrak, bere aldetik, ebazpena berrestea erabaki dezake, edo hartutako ebazpena artxibatzea erabaki dezake.

**Artículo 28.**
El órgano de gobierno podrá sancionar las infracciones cometidas por los socios que incumplieran sus obligaciones.

El procedimiento sancionador se iniciará de oficio o bien como consecuencia de una denuncia o comunicación. La Junta Directiva nombrará un instructor que tramitará el expediente sancionador y propondrá la resolución, con audiencia previa del presunto infractor. La resolución final, que deberá ser motivada, la adoptará este órgano de gobierno.

Los socios sancionados que no estuvieran de acuerdo con las resoluciones adoptadas podrán solicitar que se pronuncie sobre ellas la Asamblea General, que las confirmarán o bien acordará las resoluciones de sobreseimiento oportunas.

## IX. KAPITULUA. DESEGITEA.

## CAPITULO IX.- LA DISOLUCION.

**29. artikulua.**
Elkartea desegiteko erabakia har dezake, xede horretarako berariaz deitzen den Ezohiko Batzar Orokorrak erabakitzen badu.

**Artículo 29.**
La asociación podrá ser disuelta si así lo acuerda la Asamblea General, convocada con carácter extraordinario expresamente para este fin.

**30. artikulua.**
1.- Behin elkartea desegitea erabaki eta gero, Batzar Orokorrak beharrezko neurriak hartuko ditu, elkarteko ondasunei eta eskubideei emango zaien erabilerari dagokionez eta egin beharreko beste edozein eragiketaren xede, iraungipen eta likidaziori dagokionez.
2.- Batzarrak eskumena du likidazioa egiteko batzorde bat izendatzeko, beharrezkoa dela uste badu.
3.- Elkarteko bazkideek ez dute inolako erantzukizun pertsonalik. Dagokien erantzukizuna beren borondatez onartzen dituzten betebeharrak betetzera mugatzen da.

**Artículo 30.**
1.- Una vez acordada la disolución, la Asamblea General tomará las medidas oportunas tanto por lo relativo al destino de los bienes y derechos de la asociación, como a la finalidad, extinción y liquidación de cualquier operación pendiente.

2.- La Asamblea está facultada para elegir una comisión liquidadora siempre que lo estime necesario.
3.- Los miembros de la asociación están exentos de responsabilidad personal. Su responsabilidad se limita a cumplir las obligaciones que ellos mismos asuman voluntariamente.

4.- Likidaziotik lortzen den soberakin garbia zuzenean libratuko da elkartearen lurralde-esparru berean jarduten duen irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatu baten alde.

5.- Zuzendaritza Batzordearen ardura dira artikulu honen aurreko ataletan aipatzen diren likidazioa egiteko eta akordioak gauzatzeko funtzioak, betiere Batzar Orokorrak ez badu erabakitzen funtzio horiek berariaz izendatutako batzorde batek egingo dituela.

Alegian,

4.- El remanente neto que resulte de la liquidación se librará directamente en una entidad pública o privada sin ánimo de lucro del ámbito territorial de actuación de la asociación.

5.- Las funciones de liquidación y de ejecución de los acuerdos a los que hacen referencia los apartados anteriores de este mismo artículo son competencia de la Junta Directiva si la Asamblea General no confiriese esta misión a una comisión liquidadora especialmente designada.

En Alegia a,